



Galizierari hezkuntza eta kalea hartzea falta zaizkio”

PABLO CARRACEDO JASPER

2005ean NAO rock talde galiziarra (A Estrada, Pontevedra) sortu zutenetik bertan ari da abesten Pablo Carracedo *Jasper*. Urte askotako musika ibilbidea du, betiere konpromiso politiko eta sozialari lotuta, eta galiziera ardatz hartuta. Irakaslea ere bada. Musikan eta hezkuntzan, galizieraren osasunaren termometroa jarri du. Abenduan NAO taldeak ia hamabost urteko ibilbideari agur esango dio.

 XUBAN ZUBIRIA ELEXPE

2005. urtean Manuel Fraga Galiziako Xuntako presidentea zen. Zuek abesti konprometituak kantatzen zenituzten, eta galizieraz.

Orduan galiziera sustatzen zuen edozein adierazpide bezala, guk ere nabarmen sufritu genuen alderdi popularrak instituzioetatik praktikatutako kazikismoa. Guretzako apenas zegoen espaziorik. Urte berean etorri zen Fragaren porrot elektoral. Galiziako mugimendu aber-tzalea lehen aldiz iritsi zen gober-nura, PSGrekin [Galiziako Al-derdi Sozialista] lortutako hitzarmenaren ostean. Aldaketa hark asko la-gundu zuen galiziera ikusgarri egiten, izan musikan, literaturan edo komunikabideek hizkuntzarekiko zuten jarreraren. PPK urtetan in-posatutako eredia pitza-tzen hasi zen.

Komunikabideen jarrera aldaketa aipatu duzu.

Galizieraz sortzen zutenentzat biziga-rria izan zen komunikabideen aldaketa. Hein batean, eszenatoki politiko berriak hauspotuta hasi ziren gu bezalako tal-deak irratietan jartzen. Galizieraz egiten produkzio kulturala normaltasunez

kontsumitzeko baldintzak sortzen hasi ziren. Guretzat armairutik ateratzea izan zen. Hurrengo hauteskundeetan Feijóoren [PPko Alberto Núñez Feijóo, Xuntako presidentea 2009tik] etorrerak prozesua nabarmen geldotu bazuen ere, 2005eko aldaketa politiko hark sorturi-ko arrakala baloreen jarri beharra dago. Ezinbestekoa izan da galizieraz sortzen duguontzat.

Martín Códax da Música saria irabazi zenuten 2014. urtean. Aukera probestu zenuten galiziar kulturak bizi

duen egoera prekarioa salatzeke.

Saria gure ibilbideari aitortza izan zen. Esze-natokira saria jasotze-ra igotzea beti da polita.

Guk unea probestu ge-nuen sarietara etorri ziren gobernuko ordezkariak gau-zak argi esateko. Ezin da onar-tu Martín Códax saria erakunde gali-ziarren aurpegi garbiketarako tresna bihurtzerik. Gure kulturak bizi duen egoera hobetzeko ausardia behar da eta Galiziako Gobernua ez dago para-metro horietan, alderantziz, galiziera, erakundeek bultzatzen duten homo-geizazioaren aurrean lubaki bihurtu

da. Aldarriek hor egon behar dute, ezin gara laguntasun merkeetan erori.

Rockaz haratago, azken urteetan Galizian hip-hopak indar handia hartu du.

Benetan pozgarria da Galizian gertatzen ari dena bizitzea. Garai oso aberatsean gaude, horren adibide dira Rebeliom do Inframundo, Ezetaerre, SonDaRúa eta Dios Ke Te Crew taldeak. Askok, galizie-raz kantatuz, herrialdetik kanpo oihar-tzun handia lortu dute. Talde horiek hiz-kuntzaren gatazka lehen planora ekarri dute. Errimarik ez zaigu falta.

Bestalde, garaia eta garaia izaten dira. Gaur egun gazteak gertuago daude doinu elektronikoagoetatik. Rockari be-giratzeko badiogu, oraindik erreferenteak hor daude, jaialdi askotan kartel buru izaten jarraitzen dugu. Atxikimendua beraz badago, agian hori falta zaio rapari benetako erreferentzialtasuna lortzeko, kartel buru izatera igarotzea.

Euskal Herrira itzulita, Usurbilen jo zenuten azken kontzertua. Berezia omen da zuentzat Euskal Herrian jotzea.

Euskal musika eragin argia izan da gu-retzat. Negu Gorriak, Kortatu eta Berri Txarrak, adibidez, oso gertutik jarraitu izan ditugu. Garate Studiosen grabatu

Gaur egun, Feijóoren gobernuaren aginduz, ezinezkoa da matematika edo fisika galizieraz ematea Bigarren Hezkuntzan”

izanak hemen jotzeko aukera ekarri zuen. Sarri etorri gara Euskal Herrira. Zenbait gune autogestionatu ezagutu ditugu. Usurbilgo jaietan lagunez inguraturuta jotzea oso berezia izan da.

Musika alde batera utzita, irakaslea zara, eta azken hauteskunde europarretan BNGko zerrendetan joan zara. Apenas ikas daitekeen galizieraz hezkuntza sisteman. Hizkuntzaren aldeko borroka zertan da?

Borroka beharretik sortzen da, oraindik galiziera gutxi dago eskoletan. Gaur egun, Feijóoren gobernuaren aginduz, ezinezkoa da matematika edo fisika galizieraz ematea Bigarren Hezkuntzan. Haur Hezkuntzan dugun sistemen erruz, galizieraren presentzia are ahulagoa da, hirietan batez ere. Ama hizkuntza galiziera duten umeak egoera oso zailean uzten ditu. Txikitatik galiziera ukatzen badiezu, gerora oso zaila da beraianengan hizkuntzarekiko lotura sortzea.

Ikastolen antzera, herri ekimeneko Semente ikastetxeak ugaltzen ari dira, galizierazko irakaskuntza bermatzeko. Nola baloratzen duzu esperientzia?

Ulertu behar da Galizian eskola publikoaren aldeko borroka mugimendu sozialaren oinarrian dagoela. Beste hainbat lankidek bezala, eskola publikoa galiziera sustatzeko beste tresna eraginkor moduan ulertzen dut. Lehen aipatutako oztopoak badirela ahaztu gabe, irtenbideak duala izan behar du. Semente eskolak sustatzen jarraitu behar dugu, eskola publikoa hizkuntzaren berreskurapenean kapitala dela ulertuta. Borroka honetan eskola publikoa ezin da alboratu. Zailtasun guztien gainetik, galiziar abertzaletasunak bietan eragiten jarraitzeko hezkuntza estrategia duala garatu beharra dauka. Estrategia bikoitz horrek ikuspegi feminista, laikoa eta anitza izan beharko du ezinbestean.

Zein etorkizun du galizieraz sortzen duenak?

Ez gara inoiz pesimistak izan. Musikari dagokionez, galiziera errima eta eremuak berreskuratzen ari da. Kulturatik ematen ari den berreskurapena oinarri, hezkuntza eta kalea hartzea falta zaigu. Baldintza batzuk badaude, besteak borroka bidez sortu beharko dira. ●



NAO MUSIKA TALDEA

Behetik gora: Gustavo Brea Gus (gitarra), Antón Fernández Torroncho (baxu-jotzailea), Pablo Carracedo Jasper (gitarra eta ahotsa), X. Ramón Iglesias Amós (bateria).